

**Zer da jardunaldi jarraia?** Eskola ordutegiaren birrantolaketa da. Ikasle goaren eskola orduen banaketa aldatzen da, ekintza kurrikularrak goizeko orduetan elkartuz

**Zein izango litzateke eskola ordutegia?** Eskola ordutegia 9:00etatik 14:00etara izango litzateke ikasturte osoan zehar, ekaina eta iraila barne.

**Jardunaldi aldaketarekin eskola orduak berdinak dira?** Bai, eskola orduak berdinak izango dira baina modu desberdin batean banatuak. Ez du eskola ordutegiaren inolako murrizketarik ekarriko, ez ikasle goarentzat ez eta irakasle goarentzat ere.

**Zer iraupen izango dute saioek?** Eskolako ordutegiak 45 minutuko 6 saio izango ditu

**Zenbat jostaldi egongo dira Haur Hezkuntzan? Eta Lehen Hezkuntzan?** Bi kasuetan 30 minutuko jostaldi bat egongo da. Haur Hezkuntza eta Lehen Zikloan hamaiketako bat izango dute 2. eta 3. saioen artean.

**Zenbat jantoki txanda daude?** Bi txanda egongo dira:

1- 14:00-14:50 (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak)

2- 14:50-15:40 (Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailak)

**Zein izango dira irteera ordutegiak?**

14:00 eskola ordutegia bukatu ondoren

15:30 1. jantoki txanda bukatu ondoren

15:40 2. jantoki txanda bukatu ondoren

16:30 eskolaz kanpoko ekintzak bukatu eta gero

**Noiz jarriko litzateke martxan jardunaldi jarraia?** Jardunaldi jarraia gabonetako oporretatik bueltan hasiko litzateke, 2022 ko urtarrilaren eta 2022-2023 ikasturtean zehar ere horrela mantenduko litzateke.

**Aurreko jardunaldira itzultzeko aukera egongo litzateke?** Behin jardunaldiaren aldaketa onartu ondoren, familiek ez dute berriro bozkatu honen jarraipena. Hau bi ikasturtetan behin errebisatuko litzateke eta eskola kontseiluan onartu. Bai, aukera dago aurreko jardunaldira itzultzeko baina familien bozketa prozesurik egin gabe.

**Noiz izan zen jardunaldiaren aldaketarako egin zen azkeneko bozketa? Zein emaitza atera zen?** Azkeneko bozketa 2016 urtean egin zen eta emaitza honakoa izan zen: Erroldaren 684 botoetatik, 349 boto alde, 118 boto kontra, 0 boto txuri eta baliogabeko 0 boto. Emaitza beraz %51 jardunaldi jarrairen alde.

**Zergatik ez zen ezarri orduan jardunaldi jarraia?** 2016an, orain bezala, baiezko botoen %60a eskatzen zelako, Horregatik da hain garrantzitsua parte hartzea. Jardunaldi jarrairen alde baldin bazaude bozkatu behar duzu. Ematen ez den botoa ezezko botoa da.

**Nire seme-alaba eskolatik 14:00etan atera daiteke eta ikastetxera bueltatu 15:40etan eskolaz kanpoko ekintzaren batean parte hartzeko?** Bai, bai irakasle goak antolatzen duen ekintzetara edota guraso elkarrekin antolatutakoetara itzuli daiteke.

**Eskolaz kanpoko ekintzak egunero egongo dira?** Eskolaz kanpoko ekintzak egunero egongo dira, ostiraletan eta ekainan eta irailan izan ezik.

**Zer ordutegi dute eskolaz kanpoko ekintzek?** Asteleheneetik ostegunera 15:40etatik 16:30etara.

**Zenbat ekintzetara joan daiteke nire seme/alaba?** Familiek haien nahi dituzten ekintza guztietan izena eman dezakete.

**Ekainan eta irailan eskolaz kanpoko ekintzak egongo dira?** Ez, eskolaz kanpoko ekintzak urritik maiatza bitartean eskainiko dira, astelehenetik ostegunera.

**Dohainik izango diren eskolaz kanpoko ekintzak egongo dira?** Bai, irakaslegoak eskaintzen dituenak.

**Zein ekintza eskaintzen ditu eskolak?**

Haur Hezkuntza: psikomotrizitatea, ipuin kontaketak eta ludoteka

Lehen zikloan: Irakurketa sustapena eta ludoteka

Bigarren eta hirugarren zikloan: mahai jokoak eta etxerako lanak

Ekintza hauek dohainik izango dira.

**Zein ekintza eskaintzen ditu Zumediak?**

Haur Hezkuntza: Izan artista, dantzarekin jolasean, yoga, erraldoiak eta lego tailerra (Haur Hezkuntzako 2. mailatik aurrera)

Lehen Hezkuntza: Antzerkia, zirkoa, yoga, lego tailerra eta mekanografia (6. maila)

Ekintza hauetan parte hartzeko ordaindu egin behar da eta aurrera aterako dira talde bakoitzean gutxienez 8 lagun baldin badaude. Prezioa izen emate kopuruaren arabera izango da.

**Zein ekintza eskaintzen ditu Urbik?**

Haur Hezkuntza: erraldoiak, bururako erronkak, musika eta esploratzaile txikiak.

Lehen zikloa: bururako erronkak, lego, irristaketa eta erraldoiak

Bigarren zikloa: eztabaida taldea, zinema, bururako erronkak eta lego

Hirugarren zikloa: lego, mekanografia, eztabaida taldea eta bururako erronkak

Ekintza hauetan parte hartzeko ordaindu egin behar da eta aurrera aterako dira talde bakoitzean gutxienez 8 lagun baldin badaude. Prezioa izen emate kopuruaren arabera izango da.

**Zeintzuk dira jardunaldi jarraiaren abantailak?**

Ikaslearen irteera orduak zabaltzen ditu, familia kontziliaziorako erreztasunak emanez.

Denbora gehiago uzten du aisialdirako eskolaz kanpoko ekintzak egiteko

Ikaslearen aukera ematen dio 14:00etan etxera joateko eta bazkaldu ondoren ikastetxera bueltatzeko edozein ekintzetan parte hartzeko

Irakaslegoak antolatutako dohainiko ekintzak egiteko aukera ematen du

Familia antolakuntza errezten du

Eskola orduak era eraginkorrago batean banatzen ditu.